

E K O N O M I

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

79 2001 EKAINA

- ✓ EKONOMI NAGUSIENEN HAZKUNDEA GELDITU EGITEN DA
- ✓ 3.700 LANPOSTU GUTXIAGO EUSKAL HERRIAN AURTENGO LEHEN HIRUHILEKOAN
- ✓ EAE: 204.000 PERTSONA MUGAGABEKO KONTRATURIK GABE
- ✓ AZKEN 12 HILABETEOTAKO KPI METATUA %4koA DA


AZTERKETA BEREZIA:
ELAREN JARRERA
PENTSION AKORDIOAREN
AURREAN



ELAko Azterketa
Bulegoak egina

Hego Euskal Herriko (*) egoera ekonomikoaren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	DATA	DATUA	AURREKO DATUA	AZKEN HILEETAKO JOERA
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA					
JARDUERA TASA	%	2001 MARTXOA	52,92	53,37	JAITSIERA
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	2001 MARTXOA	1.051.700	1.034.100	JAITSIERA
ALOKAIRUPEKO BIZTANLERIA	KOPURUA	2001 MARTXOA	836.950	819.960	IGOERA
ALDI BATERAKOTASUN TASA EAEn	%	2001 MARTXOA	30,43	34,95	JAITSIERA
BIZTANLERI LANGABETUA	KOPURUA	2001 MARTXOA	131.600	158.500	MANTENDUA
LANGABEZI TASA	%	2001 MARTXOA	11,12	13,29	MANTENDUA
GAZTEEN LANGABEZI TASA	%	2001 MARTXOA	23,76	28,58	JAITSIERA
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA	%	2001 MARTXOA	16,67	19,81	JAITSIERA
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	01 URT-MAR	208.389	-	
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	01 URT-MAR	17.814	-	
ENPLEGU ERREGULAZIOA					
ONARTURIKO ESPEDIENTEAK	KOPURUA	2001 URT.	37	32	MANTENDUA
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	2001 URT.	608	1.957	JAITSIERA
LAN ISTRIPUAK					
BAJA HARTZEN DUTEN LANGILEAK	KOPURUA	01 URT-MAR	20.417	-	-
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	01 URT-MAR	247	-	-
ESKAINZA ETA ESKARIA					
PRODUKZIO INDUSTRIALA EAEn	ALDAKETA%	01 URT-MAR	-0,4	9,6	JAITSIERA
JARDUERA INDUSTRIALA NAFARROAn	ALDAKETA%	2001 URTARRILA	6,6	-	-
PRODUKZIO AHALMEN ERABILERA EAEn	%	2000	80,3	78,8	IGOERA
BPGa ESTATUAN	ALDAKETA%	2000	4,1	4	JAITSIERA
BPGa EAEn	ALDAKETA%	2000	4,3	4,3	MANTENDUA
BEGa NAFARROAN	ALDAKETA%	2000	4,3	3,9	HAZKUNDEA
PREZIOAK					
12 HILEETAKO KPIa ESTATUAN	%	2001 APIRILA	4	3	MANTENDUA
NAZIOARTEKO EKONOMIA					
LANGABEZI TASA ELGEn	%	2001 MARTXOA	6,2	6,5	JAITSIERA
LANGABEZI TASA EBean	%	2001 MARTXOA	7,8	8,5	MANTENDUA
BPGa EBean	ALDAKETA %	2000	3,3	2,5	HAZKUNDEA
KPIa EBean	%	2001 APIRILA	2,6	1,7	MANTENDUA
*Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da					



Aurkibidea

SARRERA3

EGOERA EKONOMIKOARI

BURUZKO IRUZKINAK4

1. Hazkunde ekonomiko txikiagoa
2. Moneta politika murriztailea EBean
3. Produkzio industrial eta enpleguan eragina Euskal Herrian
4. Europan baino langabezi handiagoa, batez ere emakume eta gazteetan
5. Familien sailkapena lan egoeraren arabera
6. KPlak EBean baino handiagoa izaten jarraitzen du

HIL HONETAKO PUNTAKO GAIAK7

1. Aldi baterakotasunak gehiago eta txarrago kaltetzen ditu emakume eta gazteak
2. Munduko Bankuak bere Bartzelonako Batzarra eteten du
3. Seme-alabadun familiei laguntza plana EAEan: galdutako aukera bat

BEREZIA:

ELAREN JARRERA

PENTSIONEN AKORDIOAREN

AURREAN9

1. Ustezko abaintalen errealitatea
 - a) *Gizarte Segurantzaren 1967ko urtarrilaren 1az geroztik kotizatzen hasi zirenei aurrejubilatzeko aukera ezartzea*
 - b) *Koefiziente murriztaileen jaitsiera, aurrejubilatuz gero*
 - c) *Alarguntza eta zurrutasun-pentsioak*
2. Urte gehiago hartzen dira aintzat pensioa kalkulatzeko
3. Jubilatze adinaren atzerapena sustatzen da
4. Gizarte kotizazioen murrizketa eta beste alderdi batzuk
5. Euskal esparruaren beharra

E K O N O M I E T A S I N D I K A L

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoeraren Azterketaren zenbaki honetan egoera ekonomikoaren azterketa burutzen dugu, zeinen ezaugarria hazkunde ekonomikoaren erritmo txikiago bat den. Hau sakonki aztertuko dugu.

Bestalde, beste aldagai batzuekin batera, 2001.aren lehen hiruhilekoan enpleguak izandako bilakaera da sakonduko dugun gaietariko bat, bai egoeraren aldagai ezberdinen aipamenean atalean, eta bai hileko gai puntetariko batean.

Egoera ekonomikoari buruzko iruzkinak

Uneko egoera ekonomikoa deskribatzen duen berririk nagusia, hazkunde ekonomikoaren gelditzea ematen ari dela adierazten duten gero eta datu gehiago daudela da. Hau horrela dela dirudi. Hala ere, ez dago batere argi hazkunde txikiago hau krisi egoera batera iritsiko den, eta ezta denboran iraungo duen errealitate baten aurrean edo epe laburrean konponduko den egoera baten aurrean bagaude ere. Paul Samuelson ekonomilaria dioen bezala, "egia hutsa zera da, ... inork ezin dezakeela jakin zein serioa izango den eta zenbat iraungo duen ekonomiaren abiaduraren galtze osoak".

1. Hazkunde ekonomiko txikiagoa

Momentuz, eta 2001. urte honetarako, Nazioarteko Moneta Fondo (NMF) eta Ekonomi Lankidetzak eta Garapeneko Erakundeak (ELGE) burutu dituzten aurreikuspenak aldatu egin dira, hazkunde txikiago bat aurreikusiz. Aurreikuspenon fidagarritasun eza ezaguna da, beti adierazten baitute aurreikuspena burutzen den unearen hurrengo urteetarako igoera joera bat. Hala ere, kasu honetan hauengandik azpimarragarria dena zera da: apiril eta maiatzean NMF eta ELGEk 2001. urteko buruturiko hazkundearen aurreikuspenak, urte honetarako bertarako aurreko hilabeteetan buruturikoak baino nahiko baxuagoak direla.

Estatu Batuak ekonomiaren gelditze handi bat pairatzen ari dira. Honela, 2000.eko azken hiruhilekoan BPGa %1 igo zen termino errealean, 2001.eko lehen hiruhilekoan hazkunde %1,3koa izan delarik. Produkzio industrialak ere gelditu egin da, martxora arte %0,9a igo delarik. Nahiz eta %4,5 baxu batetan egon, apirileko langabezi tasa 2 hamarren igoarazi dute enpresa handi ugarritan (nahiz eta ez hauetan bakarrik) ematen ari diren kanporatze kopuru handiek.

EEBBetako ekonomiaren hazkunde ahulak eraginak ditu Europan. EBeko lehen ekonomiaren BPGa, Alemaniakoa, uste zena baino gutxiago igo da urteko lehen hiruhilekoan, %1,6a hain zuzen. Frantzia ere, EBeko bigarren ekonomia, hazkunde

ekonomikoaren gelditze bat pairatzen ari da, urteko lehen hiruhilekoan %0,5 igo delarik, 2000ko azken hiruhilekoan igotako %0,8arekin konparatuz.

BPGAREN HAZKUNDEA			
2001. EKO LEHEN HIRUHILEKOA.			
	EEDB	ALEMANIA	FRANTZIA
BPGaren HAZKUNDEA	%1,3	%1,6	%0,5


Iturria: El País

2. Moneta politika murriztailea EBean

Guzti honek, eta etorkizunerako aurreikusitako bilakaera negatiboak, diruaren interes tasa ofiziala sarritan jaistera eraman dute Erreserba Federala (EEDBetako Banku Zentrala). Hauetariko azkena maiatzaren 15ean izan zen, interes tipoen jaitsiera puntu erdikoa izan zelarik, hauek %4an utziz. Urtarrilaren 3tik, interes tipoa %6,5ekoa zen unea, jaitsiera 2,5 puntukoa izan da.

Bien bitartean, Europako Banku Zentrala (EBZ), interes tipoa ez jaistean datzan politika bat mantentzen dator. Maiatzaren 10ean onartutako puntu laurdeneko jaitsiera, %4,5erarte, nazioarteko presioaren eraginez eman zen (ELGEk berak ere interes tipoa jaisteko eskatu zion EBZari). Ordura arte, azken sei hilabeteetan ez zen diruaren prezio ofizialik aldatu. EBZak, inflazioa kontrolatzeko bere helburua zorrozki betetzeko jarraitzen du jokabide hau, helburu honen menpe jartzen dituelarik enpleguaren sorrera edo hazkunde ekonomikoaren bizkortzea. EEBBetan ez da hau gertatzen, hemen, legeari jarraituz, Erreserba Federalak, enplegua kontutan hartzen duen moneta politika bat aplikatu behar duelako. Hau da EEDB eta EBean antzeko inflazioekin hain moneta politika ezberdinak nola aplikatzen diren azaltzen duen arrazoia.

Euro zonako KPIa %2,9an kokatu zen apirilean azken 12 hilabeteetako tasan, EEBBetan hilabete berean %3,3koa zelarik. Dena den, aipatu beharrekoa da beharrezkoa dela hazkunde ekonomiko eta enpleguaren sorrera bultzatzen dituen



moneta politika bat, baina bi helburuok ezin dira lortu interes tipoak aldatuz soilik: aurrekontu politiken eginkizuna ere beharrezkoa da honetarako.

3. Produkzio industrial eta enpleguan eragina Euskal Herrian

Hazkundearen gelditzea Euskal Herrian ere nabaritzen ari da. EAEko Produkzio Industrialaren Indizea (PII) %0,4an murriztu da 2001eko lehen hiruhilekoan, 2000ko lehen hiru hileetan hazkundera %9,6koa izan zelarik.

Hazkundearen gelditze honek eraginak ditu enpleguan. Lanean ari ziren biztanleak 1.051.700 ziren martxoan. Kopuru hau urte bete lehenago baino 17.600 pertsona gehiagokoa da, baina 2001.eko lehen hiru hileetan 3.700 lanpostu garbi murriztu dira.

Alokairupeko biztanleria 836.950 pertsonakoa izan zen martxoan, zeinek hazkunde bat suposatzen duen, bai joan zen abendutik eta bai 2000ko martxotik: Euskal Herrian 1.150 eta 16.900 alokairupeko biztanle gehiago daude hurrenez hurren epealdi bakoitzerako. Era honetara, alokairupeko biztanleriaren pisuak gehituz jarraitzen du lanean ari den populazio guztiarekiko, pertsona autonomoen pisua murriztuz batez ere.

Eustat-ek aurkezturiko datuek, alokairupeko biztanleriak duen kontratu mota ezberdinen bilakaera aztertzeke aukera ematen digute. Martxoan, EAEko alokairupeko biztanleriaren %30,43ak aldi baterako kontratua zeukan, edo ez zeukan kontraturik (hau da, aldi baterako kontratuen tasa %30,43koa zen). Aldi baterakotasun tasaren murrizketa nabarmena ageri da. Zehazki, 1,68 puntu murriztu da hau abendutik eta 4,52 puntu 2000ko martxotik.

Langabezi tasa %11,12koa zen martxoan Euskal Herrian. Ehuneko hau urte bete lehenagokoa baino 2,17 puntu txikiagoa bada ere, esan beharrezkoa da baita ere, langabezi tasa %0,01 igo dela 2000ko abendutik, hau langabezi tasaren igoeraren joeraren seinale izan daitekeelarik. Konklusio

ziurragoetara heldu ahal izateko denbora apur bat gehiago itxaron beharra dago. Hala ere, azken sei hilekoan ematen datorren eginkizun bat aipatzeak pena merezi du: populazio aktiboaren jaitziera. Euskal Herrian martxoan geneukan jarduera tasa %52,92koa zen, aurreko hileetako beheranzko joerarekin jarraituz. Honela, tasa hau 0,15 puntu jaitzi da joan den abendutik eta 0,45 puntu aurreko urtetik.

Populazio aktiboaren (ordaindutako enplegu bat duen edo eta hau aktiboki bilatzen ari den populazioa) beherapen honek, ez du uzten enplegu sorreraren gelditzea, biztanleri langabetu eta langabezi tasaren igoera batetan bihurtzen. Langabetuak 131.600 pertsona ziren martxoan, abenduan baino 300 gutxiago eta 2000ko martxoan baino 26.900 gutxiago.

Azken hiruhilekoan bai langabezi tasa eta bai langabezian dagoen biztanleria ia aldaketarik gabe mantendu diren bitartean Euskal Herrian, emakume eta gazteen langabezi tasak murrizteak datu positiboa suposatu du. Jaitziera handiagoa izan da gazteen taldean. Emakumeen langabezi tasa, %16,67 batekin martxoan, 0,27 puntu jaitzi da 2000ko abendutik eta 3,14 puntu urte bateko epealdian. Gazteen langabezi tasa, martxoan %23,76koa zelarik, 1,5 puntu jaitzi da abendutik eta 4,82 2000ko martxotik.

4. Europaraino biko langabezi handiagoa, batez ere emakume eta gazteetan

Hala ere, langabezian bilakaera hau eman arren (bai orokorrean eta bai emakume eta gazteen taldeetan), esan beharra dago, Europako Batasunarekin (EB) konparatuz, funtsezko hiru ezberdintasun ematen direla:

- Langabezia handiagoa da Euskal Herrian EBean baino- EBeko batezbesteko langabezi tasa %7,8koa zen martxoan, eta beraz, gure %11,12ko langabezi tasa EBekoa baino 3,32 puntu handiagoa da. Ezberdintasun hau, batez ere, martxoko langabezi tasa Bizkaian %14,7koa izan zelako ematen da. Araba eta

Gipuzkoan ere (%10,5 eta %8,9 batekin hurrenez hurren), langabezia EBeko batezbestekoa baino handiagoa da, EParen arabera, Nafarroakoa %6,8koa den bitartean.

- Europako langabeziarekin ezberdintasunik handiena 25 urtetik beherakoetan ematen da- Gazteen langabezi tasa EBean %15,7koa zen martxoan, Euskal Herrian %23,76koa zen bitartean, Europako batezbestekoa baino 8,06 puntu handiago.
- Emakumeen langabezi handiagoa Euskal Herrian- EBean emakumeen batezbesteko langabezi tasa %9,2koa zen bitartean martxoan (batezbesteko langabezi tasa baino 1,4 puntu handiagoa), Euskal Herrian emakumeen langabezi tasa %16,67koa zen (EBeko emakumeen langabezi tasa baino 7,47 puntu gehiago eta Euskal Herriko batezbesteko langabezi tasa baino 5,55 puntu gehiago).

EBean langabezia ez da murriztu azken hileetan. EEBBetan hasi ziren kaleratze ugariak Europan ere eragina izaten ari dira. Azpimarragarria da orokorrean EBeko gobernu ezberdinek kaleratze hauen aurrean izan duten jokabide atseginkorra; kaleratzeok, batez ere irabazi handiak aurkezten dituzten enpresetan eman dira. Europako Batzordearen aipamen generikoren bat salbu, eta batez ere, Frantziako gobernuak iragarritako enpresentzako neurri zigortzaileez gain, berriro ere argitan jarri da europar eraikuntzak ez dituela pertsonen beharrianak eta interesak kontutan hartzen, enpresenak baino.

5. Familien sailkapena lan egoeraren arabera

Euskal Herriko egoerara bueltatuz, aipatzekoak dira EAEko familien lan egoera erakusten duten Eustat-ek argitaraturiko datuak. Datu hauen arabera, EAEko familien %73,1ean bakarrik dago gutxienez pertsona aktibo bat. Honek esan nahi duena zera da, beste %26,9a osatzen duten etxebizitzetan ez dagoela pertsona aktibo bakar bat (adibidez, pertsona nagusiak, etab.).


Eustat-en arabera, gutxienez pertsona aktibo bat duten familien %80,89an ez dago inor langabezian (hau da, 406.600 familiatan). EAEko 23.600 etxebizitzatan (populazio aktiboa duten %4,69an) ez dago diru sarreraren truk lan egiten duen pertsona bakar bat, beste 72.500 etxebizitzetan bai langabetuak eta bai diru sarreraren truk lan egiten duten biztanleak elkarrekin bizi direlarik (populazio aktibodun familien %14,42an).

6. KPIak EBean baino handiagoa izaten jarraitzen du

Azkenik, KPIa aztertzeraz pasatzen gara. Espainiako estatuko errealitateak ez dio erantzuten inflazioa kontrolatzeko EBZeko asmoari. Izan ere, azken 12 hilabeteetako KPIa %4koa izan zen Estatuan apirilean, joan zen abenduko berdina eta 2000ko apirilekoa baino puntu bat handiagoa.

Espainiako Estatuan ematen den prezioen igoera EBean ematen dena baino handiagoa da. EBeko azken 12 hilabeteetako KPIa %2,6koa zen apirilean, Estatukoa baino 1,4 puntu txikiagoa, ezberdintasun erlatiboki handia.





1

Aldi baterakotasunak gehiago eta txarrago kaltetzen ditu emakume eta gazteak

EAEan 670.400 alokairupeko biztanle zeuden martxoan. Hauetatik 204.000k, hau da, %30,43ak ez dauka mugagabeko kontraturik, EBko batez-besteko aldi baterakotasunaren bikoitza soberan gaindituz.

Adin eta generoaren arabera aldi baterakotasunaren sailkapen bat burutzen badugu, emakume eta gazteak direla prekaritate egoera honegatik kaltetuenak ikus dezakegu, bai kuantitatiboki zein kualitatiboki.

Alokairupeko 100 gizonezkoko, 74,5ek mugagabeko kontratua dute, %24,7ak aldi baterako kontratua eta beste %0,8ak inolako kontraturik ez duen bitartean. Honela, aldi baterakotasun tasa (zeinek aldi baterako kontratua duten eta kontraturik ez dutenak batzen dituen) %25,5era heltzen da gizonezkoen artean EAEan. Emakumeen egoera askoz okerragoa da. Honela, alokairupeko 100 emakumeko, 61,83k soilik dute mugagabeko kontratua. Beraz, emakumeen aldi baterakotasun tasa %38,17koa da, gizonezkoena baino ia 13 puntu handiagoa.

Baina emakumeek ez daukate aldi baterakotasun tasa handiagoa soilik, baizik eta gainera, egoera honek sortarazten duen prekaritate mota gizone-tan ematen dena baino txarragoa da, emakumeen %8,55a kontraturik gabe baitago lanean, egoera berdinean dauden gizonezkoen %0,8arekin konparatuz.

ALOKAIUPEKO POPULAZIOA EAEAN. 2001.EKO MARTXOA

	ALOKAIRUP.	GIZONEZK.	EMAKUM.	16-24	16-34
GUZTIRA	670.400	409.700	260.700	70.300	286.300
EZ MUGAGABEKO %	%30,43	%25,51	%38,17	%70,84	%50,68
KONTRATU GABE %	%3,82	%0,8	%8,55	%7,82	%5,07

Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa PRAn oinarrituz.

Aldi baterakotasun tasa adinaren arabera aztertuz, hau %70,84koa da 25 urtetik beherako pertsonetan. Ehuneko hau %44,12koa da 25etik 34 urtera bitartean daudenen artean. Talde biak biltzen baditugu, 35 urtetik beherako alokairupeko biztanleriaren %50,68a mugagabeko kontraturik gabe dagoela ikus dezakegu. Emakume eta gazte izateak suposatzen dituen desabantailadun faktore biak batzen baditugu, egoera oraindik okerragoa da. 25 urtetik beherako alokairupeko emakumeen %74a mugagabeko kontraturik gabe dago eta %14,67a inolako kontraturik gabe. 25 eta 34 urte bitarteko alokairupeko emakumeen %7,35ak ez du kontraturik eta %45,82ak ez du mugagabeko kontraturik.

2

Munduko Bankuak bere Bartzelonako Batzarra eteten du

Munduko Bankuaren asmoa ekainaren 25 eta 27 bitartean Garapen Ekonomiari buruzko bere Urteroko Batzarra Bartzelonan ospatzea zen. Batzar honen iragarpenaren aurrean, egungo globalizazio neoliberalaren (zeinen sortzaile eta bultzatzaile gorenetariko bat Munduko Bankua den) aurka dauden hainbat gizarte erakundek, gailur-alternatibo bat antolatu dute, hainbat eztabaida leku eta Bankuaren politikaren aurkako manifestaldiz osatua.

Gailur-alternatibo honen aurrean, Munduko Bankuak ospatzea pentsaturik zeukan batzarra ez

burutzea erabaki du. Eten hau, galtzeko ezer ez daukan prentsa ohar baten bidez egin da publiko. "Eztabaida aske baten aurrean beldurrarazte mota honen aurka agertzeko ordua heldu da", edo "iraganean jendeak liburuak erretzen zituen askatasun akademikoaren aurka presioa sortarazteko; orain, akademikoak batzar geletara heldu ez daitezten saiatzen dira". Gezurra dirudi Munduko Bankua bezalako erakunde batek, denbora guztian pentsamendu bakarra indartzen saiatu denak, egiturazko doikuntza politikak xantaiatz betetik eta demokraziaren aurkako era batetan inposatu dituenak, edo eta eztabaida irekietan parte hartzen ez duenak, era honetako baieztapenak burutu ditzakeenik.

Batzarraren etena Bankuaren arrazoien ahultasunaren seinale da (eta baita NMF, ELGE eta Munduko Merkataritza Erakundearenak ere), eta hori zurrizko, sortuko zela espero zen biolentziaren aitzakia erabili zen.

Globalizazio neoliberalaren aurkako mugimenduak indartuz eta emaitzak lortuz jarraitzen du. Gutxienez, orain arte eredu hau zuzentzen aritu izan direnak, joaten diren tokira joan, ezeroso sentitzen hasi dira. Ez alferrik, adibidez, Munduko Merkataritza Erakundearen hurrengo gailurra (Seattle-n bere porrota eta gero) Qatar-en ospatuko da.

3

Seme-alabadun familiei laguntza plana EAEan: galdutako aukera bat

Eusko Jaurlaritzak, seme-alabadun familientzako laguntza plana deiturikoa onartu zuen hurrengo urteetarako justu EAEko hauteskundearen aurretik.

Planaren aurkezpen publikoa larritasun handiarekin planteatu zen (neurriak, dena den, indarrean sartzeko, dagokien erakundeengandik banan bana onartuak izan behar dira etorkizunean), eta

honek, planaren lantzean gizarte partehartzea formalismo hutsean bilakatu zuen.


Plana seme-alabadun familietara soilik mugatzen da, beste menpeko pertsonak estali gabe utziz (pertsona helduak, elbarrituak, etab.). Ez gaude honekin ados, etxebizitzei, familiei, laguntza, existitzen diren beharrez guztiak kontsideratuz burutu behar baita, eta beraz, ezin da haurren ardura pertsona nagusien ardura edo beste menpeko pertsona batzuen arduraz banandu. Sentsu honetan, ELAk, menpeko pertsona guztien arduraren beharrezan betetzen dituen plan oso bat eskatu zuen, inolako arrakastarik gabe.

Eduki zehatzak baloratzera pasatuz, plana guztiz ez-nahikoa dela esan behar dugu. Lehengo eta behin, Plana Institutuzioarteko deitu behar zenez, jadanik onarturik zeuden IRPFari dagozkion hainbat neurri bildu dira, honek ez duelarik inolako zentzurik.

Seme-alabadun familiei laguntza plan bat eragin-korra izan dadin, neurri nagusi bi izan behar ditu:

- 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza atalean burutzen diren eskari guztiak bete- Era honetara, EAEko familia guztien beharrezan estaliko lirateke. Onartutako plana oso urruti geratzen da gizarte beharrezanetatik, zehazki, 0tik 2 urtera bitarteko atalean.
- IRPFari loturik ez dauden hileroko laguntza zuzenak- Neurriok ez dira onartu. Alemania bezalako tokietan egun existitzen den eredu jarraituz, ELAk, seme-alaba bakoitzeko hilero 20.000 pezetatoko famili diru laguntza proposatu zuen.

Ondorioz, ELAk planaren balorazio negatiboa burutzen du, zeinek ez dituen aurrean aipaturiko proposamenak biltzen. Ez da plan egokia, eta gainera, partziala da.



BEREZIA: ELAren jarrera Pentsioen Akordioaren aurrean

Espainiako gobernuak, CCOO eta CEOEkin sinatu berri duten "Gizarte Segurantzako sistemaren garapenari buruzko akordioak" ez dakarkio garapenik Gizarte Segurantzako sistemari, izenburutik besterik ondoriozta baliteke ere; aurkakoa alegia, orokorrean, pentsioetako gastua murrizteko helburua dauka.

Pentsioen azken erreforma onartu zenetik 4 urte eta erdi besterik ez da igaro eta, berriro ere, hementxe daukagu hori aldatzeko akordio berri bat. Horren iraunaldia lau urtekoa izango da, beraz, beraren amaieran erreforma edo murrizketa gehiago etorriko dira.

Eskubideak behin eta berriro murriztean datzan politika hori berdin aplikatzen da gizarte babesaren eremuan (pentsioak; oraingoan, berriro, langabezi prestazioen murrizketa iragartzen da) zein lan eskubideenean (lan erreforma berria, adibidez). Aurrean duguna zatika osatuz doan estrategia da, egiten den erreforma bakoitzak eskubide batzuk (oraingoak zein etorkizunekoak) murrizten baititu. Lan erreformari buruzko balorazioan adierazi genuen bezala,

"prozesu honetan, une bakoitzean indarrean dagoen legeria geltoki bat da helmugako geltoki finkorik ez duen tren honen bidean; baina gauza jakina da trenaren barruan goazenok, geltokiak igaro ahala, apur bat txartoago egongo garena."

1. Ustezko abaintalen errealitatea

Oraingo akordio hori Toledoko Itunaren eta pentsioen gaineko aurreko erreformaren jarraipena da. Saldu ahal izateko, aurrejubilazio eta alar-guntza eta zurtzasun-pentsioak nabarmendu nahi izan dituzte. Azter dezagun alderdi horiei buruz erabakitakoa.

a) *Gizarte Segurantzaren 1967ko urtarrilaren 1az geroztik kotizatzen hasi zirenei aurrejubilatzeko aukera ezartzea.*

Gizarte Segurantzaren kotizatzen dutenetatik %10ak baino ez du data hori baino lehenagotik egiten; hortaz, lan egiten duen biztanleriaren %90ak ez du aurrejubilatzeko aukerarik. Esan behar da egoera hori salbuespenezkoa dela Europako Batasuneko pentsio publikoen sistemetan. Akordioak aukera hori ematen badu ere, aurrejubilazioari heldu nahi diotenek, gaur egun aurrejubilaturik daudenek bete behar ez dituzten baldintza batzuk bete beharko dituzte. Baldintza horiek ez dute eraginik izango 1967 baino lehenago kotizatzen hasi zirenen gain, horien egoera bere horretan mantenduko delarik.

Horrela, aurrejubilazioa ez da jadanik eskubidea izango, nahiko hertsia diren baldintza batzuk betez gero emango zaigun aukera bat baizik. Oraingo araubidearekiko atzerapausoa da, izan ere, aukera hori izateko, besteak beste, 61 urte beteta eta 30 kotizazio-urte eduki beharko dira (gaur egun lan merkatuan dauden gehienak kanpoan uzten dituenak, batez ere gazte eta emakumeak) eta gutxienez 6 hilabetez langabezia egon beharko da, norberari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik kaleratua izanik. Ondorioz, eskubideak murriztu egiten dira eta, gainera, azpijokoa eta iruzurra sustatzen dira, hauek Espainiako Estatuko lan arloaren eta gizarte babeserako zuzenbidearen ezaugarri izanik.

b) *Koefiziente murriztaileen jaitsiera, aurrejubilatuz gero*

65 urtetik behera jubilatzen denaren pentsioari aplikatzen zaion koefiziente murriztailea, adin horretara iritsi arteko urte bakoitzeko, honokoa izango da: 30 urtez kotizatu badu, %8; 31 eta 34 urte bitarte baditu kotizatuta, %7,5; 35 eta 37

urte bitarte, %7; 38 eta 39 urte bitarte, %6,5; 40 urte edo gehiago, %6. Koefiziente horiek bai 1967 baino lehen, bai data horren ostean kotizatzen hasi zirenengain eragingo dute.

Aurrejubilazio kasuetarako zigorra murriztu egiten da 31 urtez edo gehiagoz kotizatu dutenentzat, baina gehiegizkoa izaten jarraitzen du: izan ere, pentsiodun baten bizitzan zehar, Gizarte Segurantzak formula horrekin dirua aurrezten jarraituko du, 65 urtekin jubilatu eta pentsioaren %100a kobratzen dutenen aldean.

c) *Alarguntza eta zurtzasun-pentsioak*

Alarguntza-pentsio berrietan, oinarri erregulatzaileari aplikatuko zaion ehunekoa %42tik %52ra igaroz joango da. Alarguntza-pentsioa jasotzen duenak famili kargak izanez gero eta alarguntza-pentsioa errentak eskuratzeko bide nagusia bada, oinarri erregulatzaileari aplikatu beharreko ehunekoa %70ekoa izango da.

Pentsioen zenbatekoetan egindako aldaketa horrek kontzeptu horrengatik pentsioak jasotzen dituzten pertsonetako gutxi batzuk ukituko ditu errealtatean. Estatu espainiarrean, alarguntza-pentsioa, batez beste, 56.000 pezetakoa da (Euskal Herrian 141.125 alarguntza-pentsio daude, batez beste 62.783 pezetakoa). Argi dago %52 %45 baino gehiago dela. Alarguntza-pentsioetako askok gutxienekoen osagarria duteenez, oinarri erregulatzailearen ehuneko horren igoerak ez ditu alarguntza-pentsiorik txikiak igoaraziko, gutxienekoen osagarria jaitsiko delako eta ondorioz, benetan kobratu beharreko kopurua lehenengo bera izango delako.

Horri dagokionez adierazi behar da akordioak onartu egiten duela pentsioen gutxieneko zenbatekoak orain arte bezain urriak izaten jarraitzea. Gutxieneko pentsioen zenbatekoaren urritasuna eta gutxiegitasuna dira adinekoren eta pentsiodunen artean dagoen pobrezi tasa altuaren arrazoi nagusietakoak.


Zurtzasun-pentsioei dagokienez, urtebete geroago ezarri da haiek jasotzeko adin-muga. Luzapen hori guztiz eskasa da, batez ere zertaz ari garen gogoan izanik. Euskal Herrian 16.890 zurtzasun-pentsio daude, batez beste 39.094 pezetakoa. Akordioak ez du aipatzen pentsio mota horren zenbatekoa handitzeko neuririk.

2. **Urte gehiago hartzen dira aintzat pentsioa kalkulatzeko**

Errealtateari gutxien egokitzen zaion informazioetako bat, hau da, manipulatuenetako bat, pentsio berrien zenbatekoa kalkulatzeko aintzat hartzen den urte kopuruari dagokiona da. Alderdi hori eragin handikoa da zenbateko pentsioa kobratuko den jakiteko. Arau orokor gisa (hemen aipatuko ez ditugun salbuespenak salbu), pentsioaren oinarri erregulatzailea kalkulatzeko zenbatzen den urte-kopurua ugaritzean, haren zenbatekoa murriztu egiten da; izan ere, antzinatasuna, kategoria-igoerak edo beste arrazoiren bat delata, azken lan-urteetako soldatak lan-bizitzaren hasierakoak baino handiagoak izaten dira. Horregatik, pentsioa kalkulatzeko azken urteetako kotizazioei begiratzuz gero, pentsioak altuagoak izango dira lehenengo lan urteak aintzat hartzean baino.

Gaur egun, azken erreformaren ondorioz, urtero urte bat gehiago hartzen da kontuan pentsioa kalkulatzeko. 2001ean 12 urte hartzen dira kontutan eta 2003an 15 izango dira. Beraz, pentsio berriak galera orokorra jasaten ari dira.

Sinatutako akordioak onartu egiten du 2003tik aurrera pentsioa kalkulatzeko aintzat hartzen den urte kopuruak gora egiten segitzea, horrek pentsio berriei murrizketa handiagoak badakarzkie ere. Baliteke orain esan dugun hori bitxia suertatzea, eman den bertsioaren arabera, aintzat hartuko den urte-kopurua 15ekoa izango da eta. Ituna sinatu dutenek benetan hitzartu dutena jendearen aurrean esaten ausartu ez direlako eman dute bertsio hori, testua irakurriz inola ere ezin ondoriozta daitekeena, bai eta komunikabide



gehientsuek sinatzaileen bertsioa igorri dutelako, sinatutako agiriari begiratu gabe.

Hain zuzen ere, hauxe dio akordioak:

"...oinarri erregulatzailerak kalkulatzeko sistema berrikusi egingo da, langileak bere lan-bizitzan zehar egindako ahalegina apurka-apurka kontuan hartuz joateko... Horregatik honako Akordioa sinatzen duten alderdiek 2003an, oinarri erregulatzaileraren kalkulua zabaldu arteko epealdia amaituta, prestazioak kalkulatzeko erarik egokiena ezartzeko neurriak hartzeko konpromisoa hartzen dute."

Argi dago, beraz, pentsioa kalkulatzeko aintzat hartzen den urte-kopuruak gorantz segituko duela 2003an, pentsioek, aldiz, murriztuz segituko dutelarik. Pentsioen aurreko erreforman jadanik salatu genuenez, 15 urteko epealdi hori finkatzea zatika osatuz doan estrategiaren urrats soil bat izan zen. Oraingo akordioak berretsi egiten du tesi hori. Gainera, sinatutakoak ez dio mugarik jartzen aintzat hartu beharreko urte-kopuruari. Beraz, lan-bizitza osoa kontuan hartzearen alde dauden tesi antisozialenak dira garaileak.

Akordioaren atal horren izenburua "Kontributibitatea eta sistemaren ekitatea" da. Kontzeptu horiek Toledoko Ituneari eta aurreko pentsio-erreformari erabili ziren jadanik. Horiakin, orain bezala, zilegitasun zientifikoaren itxura emanez justifikatu nahi dituzte pentsioen murrizketak. Horrela pentsioak benetan zer diren estali nahi dute, hau da, berez, kotizazio-urteen bidez sortu den prestazio ekonomikoa dela, norberak lan-bizitzan zehar dauzkanen antzeko sarreramailak mantentzea eta duintasunez bizitzea ahalbidetu behar duena, hain zuzen ere. Ezartzen den formula matematiko oro helburu horien menpe jarri behar da. Bai aurreko erreformari, bai oraingoan, helburu bakarra gizarte atzerapausoak justifikatzea da, horretarako, kalkulatzeko formulak egokiak ez direla eta aldatu egin behar direla (eta beti okerragora, noski) argudiatuz.

Hona hemen aurreko erreformari hartutako neurrietako beste bat, orain berriro aplikatu daitekeena: urte gutxiagoz kotizatu dutenen pentsioen murrizketa, alegia. 1996an erabakitakoaren ara-

bera, 15 urtez kotizatu zutenek, ordura arte oinarri erregulatzaileraren %60 kobratzen zutelarik, %50 kobratuko zuten aurrerantzean (kontributibitatea eta sistemaren zuzentasuna hobetzekotan omen).

Orain sinatutako akordioan adierazten denez,

"beharrezkoa da kontributibitate irizpideetan sakontzea, kotizazio-ahalegina eta lortzen den prestazio-mailaren araberrako proportzionaltasun handiagoa lortzeko, eta honela ekitatea areagotu... Hori dela eta, sakontasunez aztertu beharko da 1996an hartutako neurriek prestazioetan izan duten eragina, prestazioen kalkuluan sistemaren ekitate eta izaera kontributiboa sendotzeko helburuarekin".

1996an hartutako neurriak, pluralean, eta erabaki hori iradokitzen zuen Toledoko Itunaren gomen-dioa aipatuta, erraz uler daiteke urte gutxiagoz kotizatu dutenen pentsioak are gehiago murrizteko asmoa dagoela.

3. Jubilatzeako adinaren atzerapena sustatzen da

PPko gobernuak, CCOO eta CEOE sinatutako akordioak zuzen-zuzen jotzen du lanaldia murriztearen eta gazteriarri lanpostua lortzeko aukera ematen dioten enplegu politiken aldeko aldarrikapen sindikalen kontra, beraren helburuetako bat "jardueran denbora luzeagoz mantentzea" lortzea baita, hau da, jubilatzeako adina atzeratzea. Horrez gain, akordioak dioenez, laneko presentzia aktiboa ez eragozteko onuragarria da pertsonen autoestimarentzat eta pentsioen sistemarentzat eta, gainera,

"gizarte osoarentzako onura eztabaidaezina dakartza, era horretan adineko langileen esperientziak eta ezagupenak aprobetxatu ahal dira eta."

Jubilatzeako adina atzeratzea, lan merkatuan hasi behar duten belaunaldi berrientzako lanpostuak sortzeko beharrezko politikaren kontra dator. Eta, gainera, onartezina da gizartearen ikuspuntutik. Bada, akordioak hainbat neurri iragartzen du jubilatzeako adina atzeratzekotan:

- a) 65 urte beteta eta 35 kotizazio-urte dituztela lanean segitzen duten langileentzat, erretiro-pentsioen oinarri erregulatzailerari aplikatzen zaion ehunekoa %100 baino gehiagokoa izan dadin ahalbidetzeko neurriak garatzeko aukera aztertuko da.
- b) Gizarte Segurantzako Sistematik pentsio bat jasotzen hasten den unetik, erretiro-pentsioa eta lan jarduerak garatzea bateragarri izan daitezen ahalbidetzea.
- c) 35 urtez kotizatu eta 65 urte edo gehiago dituzten langileen arrisku arruntengatik gizarte kotizazioen ordainketatik salbuestea.

4. Gizarte kotizazioen murrizketa eta beste alderdi batzuk

Bestalde, akordioak areago indartzen du enpresariak Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioen hobari eta murrizketen aldeko politika. Horretarako, Gizarte Segurantzari gutxiago ordaintzeko eskubidea ematen duten kolektibo batzuk aipatzen ditu: 65 urtetik gorakoak, 60 urtetik gorakoak, 55 urtetik gorakoak, lanpostura itzultzen diren amak, etab.

Neurri horiek guztiek zuzeneko bi ondorio dakartzate. Alde batetik, enpresariaren errenta handitu egiten da eta, bestetik, gizarte segurantzaren baliabideak murriztu egiten dira. Egungo filosofiarekin bat, pentsioen finantzaketaren murrizpen horrek, unea iritsita, pentsioak murriztu beharra ekarriko du, finantza-arrazoiak argudiatuz.

Gainera, hitzartutakoaren arabera, "gobernuak erabakiko du soberakinen norakoa,... prestazioen hobekuntzaren eta gizarte kotizazioen murrizketaren arteko beharrezko oreka gordez...". Hots, gobernuaren esku geratzen da, gizarte segurantzarako kotizazioak orokorrean murrizteari dagokionez, berak egoki deritzon erabakiak hartzea, horrela ugazaberiak bere helburu irrikatuenetako bat lortzen duelarik. Gobernuak egingo du "beharrezko orekaren" interpretazioa; horrek ez du iruzkinik behar gure aldetik.


Hona hemen sinatutako akordioan isladatzen diren beste alderdi aipagarri batzuk:

a) *Finantzaketa-iturrien bereizketa eta erreserba fondoaren hornidura.*

12 urtetik beherako epean, Gizarte Segurantzako pentsioetako gutxienekoen osagarrien finantzaketa aurrekontuen pentzura, hau da, zergen bidez, egingo da guztiz. Edonondik begiratuta ere, 12 urteko epe hori gehiegizkoa da, izan ere, berez, aurreko itunaren arabera, konpromiso horrek beteta egon beharko baitzuen jadanik. Horrez gain, 2004 urterako erreserba fondoa 800.000 milioi pezetaz osatzea erabaki da. Edonola ere, pentsioei dagokionez, garrantzitsuena ez da horiek nola finantzatzen diren, haietzako finkatzen den zenbatekoa baino; horregatik, finantzaketa-iturriak bereizteko prozesua eta gizarte kotizazioen murrizketa-politika aldi berean aipatzea, etorkizunean prestazioak murrizteko argudioa izan daiteke.

b) *Menpetasun-asegurua*

Akordioan "adinekoei eta elbarrituei zuzendutako politika orokor eta koordinatuei" buruzko atal bat dago. Bertan jasotako konpromiso zehatza hiru hileko epean Espainiako gobernuak, autonomia erkidegoek eta udalek osatutako instituzio arteko lan batzorde bat sortzea da.



Ondorioztapen gisa esan daiteke aurrean dugun akordio horrek gizarte segurantzako sistemaren azken erreformatan aplikatu izan den atzerantzko bide berean segitzen duela. Horren ondorioak zatika nozituz joango dira. Lanean hasten diren azken belaunaldiak dira akordio horren kalterik handiena jasango dutenak, askoz baldintza txarragoetan jubilatuko baitira. Era berean, prekarietatea (aldi baterako kontratuak, lanaldi partzialekoak, etab.) gehien nozitzen dutenei, hau da, emakume eta gazteei, eskubideak murriztuago geratuko zaizkie.

5. Euskal esparruaren beharra

Gaur egun, gai horren gaineko eskumen arauemailea Estatuak dauka. Beraz, euskal langileok, gureak ez bezalako gehiengo sozialak dauden esparruetako erabakiak jasan beharrean gaude. Horrek, azken lan erreforman gertatutakoak bezala, agerian jartzen du lan harremanetarako eta gizarte babeserako euskal esparruaren erakuntza ez dela auzi ideologiko hutsa, zuzeneko ondorioak baititu Euskal Herrian bizi garenon lan eta bizi-baldintzetan. Horregatik, behar-beharrezkoa da lan arloari eta gizarte babesari buruzko legeak emateko eskumena euskal instituzioek izatea.



Notas

A series of horizontal dotted lines for taking notes.